



2024KO AZAROAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lau azaroaren hogeita zortzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Maialen Amundarain Irizar eta Carolina Aguirre Mastrangelo zinegotziek ezin etorria adierazi dute.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

Alkateak dio gai-zerrendan ez dagoen puntu bat bertan sartzea proposatzen dutela, presazko izaera duela iruditzen zaielako. Hain zuzen ere, azaroaren 18an Udal honek udal instalaziotan gertatutako eraso matxista baten inguruko salaketa baten berri izan zuen Tolosako epaitegitik. Salaketa horren inguruan Udalak adierazpen instituzionak bat argitaratu zuela, gaitzespen instituzional bat, eta orain urratsa bat gehiago ematea proposatzen da. Urrats hori Lazkaoko Udala akusazio partikular gisa pertsonatzea da prozedura honetan. Beraz, gai hau jorratzea da proposamena.

EH Bilduk 5 minutu eskatzen dituzte kanpora irten eta zer bozkatuko duten pentsatzeko. EH Bilduko zinegotziak aretotik irten dira.

Berriz ere bueltatu dira irtendako zinegotziak. Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du urrats hau emateko epearen aldetik presarik ez badago, ez diotela presazko izaerarik ikusten. Prest daudela bihar bertan Osoko Bilkura berezi bat egiteko gai honi buruz hitz egiteko, baina gaurkoari ez diotela presazkotasunik ikusten, nahiz eta garrantzia ikaragarria duen gaiak.

Hau guztia honela, puntu berri hau gai-zerrendan sartzea bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 4 botorekin, Lazkaoko Udala prozedura horretan akusazio partikular gisa pertsonatzea jorratzea erabaki du.

I.- AURREKO AKTAK.-



Puntu honi dagokion dokumentazioa ez da aurkeztu, beraz 2024ko irailaren 26ko, urriaren 17ko eta urriaren 31ko aktak hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko dira bere onarpenerako.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 7 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN ONARPENA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 4 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 7 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	14.600 €
III	Finantza gastuak	260,00 €
VI	Inbertsio errealak	116.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		130.860,00 €



FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	130.860,00 €
GUZTIRA		130.860,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 8 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako kreditu gehigarri bidezko 8. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

V.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 3 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako kreditu transferentzia bidezko 3. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

VI.- 2025 URTEKO AURREKONTUA.-

Jarraian 2025. urterako aurrekontua aurkeztu da Osoko Bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek Udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu espedientearen jasotako dokumentuen artean aurrekontua burutzeko udal araua ere badago.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordean informatuak izan dira.

Alkateak aurrekontuaren azalpen orokorra egin du. Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) inbertsioen atala azaldu du.

Ormazabal zinegotziak dio (EH Bildu) aurreko batzordearen bileretan errepikatu dutela aurretiko lanketaren falta somatzen dutela. Aurrekontuak osatu aurretik faltan bota



dutela zehaztea zein diren Lazkaoren etorkizunerako ildo estrategikoak, horretan adostasunak bilatzen saiatzea, horietan lehentasunak zein diren izendatzea eta kuantifikatzea eta horrela aurrekontuak osatzea. Hori ez dela egin aurten ere. Adi entzun dituztela lehen bilerara ekarritako proposamenak eta gehienekin bat egiten zutela. Baina azken orduan kiroldegia nahi dutela herri honen tamainarako izan daitekeenik eta onena, baina egiteko moduan eta aurtengo ikasturtean zehar 1.000.000 € gehiago gastatua dagoela ikusi dutela, eta orain beste 350.000 €-ko igoera hau ezin dutela onartu.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) dio ulergaitza iruditzen zaiela beraien jarrera aurrekontu guztiaren % 20arekin soilik bat ez datozelako. Ea beraien proposamena kiroldegia dagoen bezala uztea al den galdetzen die. EH Bilduk egindako 4 proposamenak txertatu dituztela aurrekontuetan, aurrekontu osoaren %3,8a suposatzen dutenak. Galdetzen die hori al den euren proposamen bakarra. Edukia falta dela bere ustetan. Adostasunera iristeko intentzioa dutela. Ezinbestekoa iruditzen zaiela kiroldegia amaitzea. Beren ustetan ez dutela benetako negoziazio prozesua egin nahi izan.

Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botorekin (EAJ), 4 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehen.- 2025. urterako Udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2025EKO UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.793.843,73 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	150.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.176.938,98 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.616.610,72 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	153.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIOEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA-KO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	234.860,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	200,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>10.125.453,43 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.886.350,11 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.777.213,32 €



III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	1.340,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	760.050,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.642.300,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	58.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	200,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
GASTUAK GUZTIRA			10.125.453,43 €

2025EKO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

V	KAPITULUA	ONDARE SARRERAK	10.000 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA	28.630,78 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	194.209,00 €
SARRERAK GUZTIRA			232.839,78 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	13.590,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	3.462,08 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	215.787,70 €
GASTUAK GUZTIRA			232.839,78 €

2025EKO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.793.843,73 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	150.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.176.938,98 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.616.610,72 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	163.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	28.630,78 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	429.069,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	200,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA			10.358.293,21 €



LAZKAOKO
UDALA

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.886.350,11 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.790.803,32 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	4.802,08 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	760.050,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.858.087,70 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	58.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	200,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>10.358.293,21 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost egun baliodunetako denborealdian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denborealdian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VII.- PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERREDA.-

Jarraian, Osoko Bilkuran aurkeztu dira bere onarpenerako 2025eko Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, aho batez, onartu egin ditu.

VIII.- 2024-2027 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.-

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen ematea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatzen du, dirulaguntzak ematea ezarri nahi duen edozein administrazio publikok edo bestelako edozein erakundek, aurrez, plan estrategiko batean zehaztu beharko dituela dirulaguntza horiekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikusitako kostuak eta beraien finantzaketa iturriak, eta betiere aurrekontu egonkortasun helburuak betetzearen menpean jarrita.

Udalbatza honek 2024-2027 epealdirako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2023ko azaroaren 23ko bilkuran. Honako dokumentu honi aldakuntza batzuk egiteko beharra ikusi zen eta, aurrez Ogasun Batzordea informatua izan ondoren, Osoko Bilkura honetara ekarri da dirulaguntzen plan aldatua bere onarpenerako.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2024-2027 epealdirako dirulaguntzen plan estrategiko honen aldaketa, bere espedientean dagoena, onartzea erabaki du.



IX. KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 29. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztatzea egin dute.

Hogeita bederatzigarren obra egiaztatzea LAUROGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMOKOA (89.732,13 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 4 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.

X.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN 5. ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren zuzendaritzak kontratua aldatzeko beharra adierazi dio kontratazio organoari.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen esleipena 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen eta lan hau-ek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitu zitzaizkion lau milioi hogeita hamabost mila berrehun eta hirurogeita hamahiru euro eta hirurogeita hiru zentimo (4.035.273,63 €) gehi BEZari dagokion zortziehun eta berrogeita zazpi mila laurogeita eta zazpi euro eta berrogeita sei zentimo (847.407,46 €)ko prezioan.

Kontratua 2022ko maiatzaren 3an formalizatu zen, eta zuinketa egiaztatzeko akta 2022ko ekainaren 6an egin zen, kontratista ados zegoela.

2022ko apirilaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordean obra-zuzendaritza zerbitzua Jovino Martinez Sierrari esleitu zitzaion.

2022ko urriaren 13an, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako lehen proiektu bat idaztea onartu zuen, metalezko pasabide bat egin behar zelako, aurrefabrikatutako egitura aldatu zelako eta euste-lanak eta lur-mugimenduak aldatu zirelako. 2022ko urriaren 27an egin zen bilkuran berriz, kontratu hau aldatzeko espedientea onetsi zuen.

2023ko maiatzaren 4an berriz, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako bigarren proiektu bat idaztea onartu zuen, hormak drainatu eta iragazkaiztu behar zirelako, lurzatian zegoen saneamendua desbideratu behar zelako, megafonia-instalazioaren zentralizazioa eta araudi berrira egokitzeko eta pasabidearen egitura metalikoaren suaren aurkako tratamendua egin behar zelako. 2023ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, kontratua aldatzeko bigarren espedientea onetsi zuen.

2024ko urtarrilaren 25ean ere, Osoko Bilkurak, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren hirugarren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu zuen, hainbat arrazoiak obra egikaritzeko epea luzatzea eragin baitzuten. Honenbestez, obraren amaiera eguna atzeratzea ekarri zuen honek. 2024ko otsailaren 29an egindako bilkuran, kontratua aldatzeko hirugarren espedientea onetsi zuen.

2024ko maiatzaren 30ean, azkenik, Osoko Bilkurak, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren laugarren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu zuen, egungo igerilekuaren ontziaren egitura eraitsi eta egitura berri bat egin behar zelako, beheko solairuko fatxadako ataria konpondu behar zelako, kiroldegia ontzi berriarekin lotzeko gunean materiala aldatu behar zelako eta uren tratamenduan aldaketa egin behar zelako. 2024ko uztailaren 18an egindako bilkuran, kontratua aldatzeko laugarren espedientea onetsi zuen.

Obra zuzendaritza daraman Jovino Martinez Sierrak 2024ko azaroaren 25ean txosten bat egin du, eta bertan adierazten duenez, igerilekuko hezetasunak eta giroak igerilekuko espazioaren goiko forjatuan eragindako patologiek, igerilekuko goiko forjatuen habexken eta habeen estribuen armadurak oxidatzea eragin dute.

Obra zuzendaritzak egindako txostenean, aurretik azaldutakoa ikusirik, beharrezkoak diren jarduketak berriak proposatu ditu. Obran zehar hauteman diren eta Proiektu Teknikoa egiteko unean kontuan hartu ezin ziren ezusteko kausa teknikoak oinarritzat hartu ditu, eta beharrezkotzat jo du behar diren aldaketak jasoko dituen proiektu bat egitea, proiektua bera modu egoki batean egikaritu dadin.

Aldatutako proiektuaren kontrata bidezko aurrekontua, guztira (BEZik gabe), 69.589,48 eurokoa da.

Aldaketa hauen proposamenean egin beharreko jarduketek, obra gauzatzeko epea 15 egunetan luzatuko dute. Horrek amaiera-data, 2025eko apirilaren 21ean aurreikusita zegoena, 2025ko maiatzaren 6ra arte atzeratuko luke.

Beraz, obra-epea luzatuta, obra 2025ko maiatzaren 6an amaitzea aurreikusten da.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, obra-kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra, hurrengo arrazoiak eragiten du beraz:



1) Kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek, eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:

- a. Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldaketaren beharra.
- b. Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.
- c. Kontratua aldatzeak kontratuaren zenbatekoa aldatzen badu ere, lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren kontratu aldaketen baturak ez du hasierako prezioaren ehuneko 50 gainditzen, BEZik gabe.

Horregatik guztiagatik, baimena eskatzen da Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren aldatutako proiektua idazteko eta izapidetzeko.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza Etxebizitza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), kontrako botorik gabe eta 4 abstentziorekin, honako akordio hauek hartu ditu:

- 1) Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea.
- 2) Obra zuzendaritzari aldatutako proiektu berria idatz dezan eskatzea.

XI.- LAZKAOKO UDALA AKUSAZIO PARTIKULAR GISA AGERTZEA LAZKAON, KIROL-EREMUAN, USTEZ GERTATUTAKO SEXU-ABUSUEN PROZEDURA PENALEAN.-

Etxaniz zinegotzia (EAJ-PNV) bilkurara itzuli da.

Alkateak azaldu duenez, Lazkaon kirol-eremuan ustez gertatutako sexu-abusuen salaketak kontuan hartuta (Udalak horien berri izan du), eta gaiaren larritasuna kontuan hartuta, osoko bilkura honi proposatu dio Udalbatza akusazio partikular gisa ager dadila prozedura penal horretan.

Horretarako, Koldo Menika Landabaso letratu izendatzea proposatu du, eta Iñigo Navajas Saiz prokuradorea prozedura honetan.

Antoñanzas (EH Bildu) zinegotziak esan du hau ez dela oraingo kontu bat, aurretik datorren kontu bat dela eta ea aurretik beste informaziorik ba ote zuten galdetu dio Alkateari.

Alkateak ezetz erantzun dio, salaketa honen berri udalak azaroaren 18an jaso duela.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdegin du ea salaketa eragin duten gertakarien berri bazuen lehendik Udalak.



LAZKAOKO
UDALA

Alkateak erantzun dio salaketa eta salaketarekin batera gertakarien berri, azaroaren 18an, Tolosako epaitegitik udaltzaingora bideratutako autoaren bitartez izan zuela Udalak. Hori izan dela lehen berri izatea.

Hau guztia honela, Udaltzazak aho batez honakoak onartu ditu:

Lehenena.- Akusazio partikular gisa agertzea prozedura penal honetan, Koldo Menika Landabaso letratu eta Iñigo Navajas Saiz prokuradore izendatuz.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea, erabakia behar bezala bete dadin, hartutako erabakiari dagozkion gainerako zehaztapenak egin ditzan.

XII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) konpostatzeko zerbitzuaren inguruan bi galdera luzatu dizkio Alkateari:

- 1) Zertan datza zehazki Sasietak Lazkaoko Udalarari ematen dion zerbitzua?
- 2) Zergatik ez du hitzartu zerbitzu hori Lazkaoko Udalak Sasietarekin?

Alkateak bi galdera hauei erantzun die.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zortziak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

